

HITZ POLISEMIKOAK ETA HITZ HOMONIMOAK

1- Lotu HITZ POLISEMIKO bakoitza dagokion definizioarekin:

1 Bueltan itzuli	a) Sorbalda gainean egon ohi dena.
2 Euskal Herriko itzulia	b) Berriz etorri, bueltatu.
3 Enpresako burua	c) Gainerako guztiari eusten dion atala.
4 Leireren burua	d) Enpresako nagusia
5 Mikelen oina	e) Gizakiok ibiltzeko behar duguna
6 Zutabearen oina	f) Euskal Herrian egiten den lasterketa

2- Aukeratu nabarmendutako hitz bikoteak polisemikoak edo homonimoak diren. Sakatu erantzun zuzenaren gainean.

Zalantza baduzu, hiztegia begira ditzakezu esanahiak.

- **Ehun** zapi aterako ditu **ehun** horretatik.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- Txanpain **kopa** batekin ospatuko dut Futbol **kopa** irabazten badut.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- Zezenaren **adarrak** zuhaitzen **adarrean** korapilatu dira.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- **Har** ezazu lurretik dabilen **har** hori!
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- Lurretik dabilen **harra**, emea ala **arra** da?
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- **Laranja** zukua oso gustuko dut, baina **laranja** kolorea ez.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- Neska hori oso **argia** da, eta eguzkiaren **argia** hartzen ari da.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK
- **Baso** eder horretan, **baso** bat ur edan dut.
POLISEMIKOAK HOMONIMOAK